


06.



SATHI MAILAMMA:

ERrealitatea aldatzea
Lortu zuen emakume
indigena

Mailamma 2007ko urtarrilaren 6an hil zen. Oso pertsona garrantzitsua izan zen Coca-Cola enpresaren aurkako kanpainan; izan ere, enpresa horrek ura atera eta ingurumen-kutsadura eragiten zuen. **Mailamma buru zela, komunitateak keralako eskualde bateko coca-colaren botilaratze-fabrika ixtera behartu zuen, 2004ko martxoan.** Gaur egun ere, fabrika itxita dago.



Mailamma adivasien komunitate aborigen bateko kidea zen, eta giza eskubideen defendatzaile amorratua. “Coca-Colaren aurkako borroka-batzordea” sortu zuen (anti Coca-Cola Struggle Committee). Ekintza baketsu bat baliatu zuen, indiako aldarrikapenetan ohikoa zen bezala. Eserialdi bat egin zuten fabrikaren aurrean. Hilabete asko iraun zuen eta jende eta talde asko batu zitzaizkien. Azkenean, konpainia handik botatzea lortu zuen.



“Her dedication, commitment and leadership will remain an inspiration to us all”



Emakumeak
Indian
Garapenaren eragile

